

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroan giltzurruneko 40 transplante, gibelesko 24 eta bihotzeko 5 egin ziren 2011n

2 pertsona itxarote-zerrendan daude bihotz bat jasotzeko zain, 16 gibela transplantatzeko eta 77 giltzurruna transplantatzeko

Lunes, 02 de enero de 2012

2011n zehar Nafarroan, guztira, [giltzurruneko 40 transplante \(haietatik 4 bizirik dauden emaileenak\)](#), [gibelesko 24 transplante \(3 bizirik dauden emaileenak\)](#) eta [bihotzeko beste 5 transplante egin ziren](#). Hala adierazi du gaur Osasun Departamentuko Marta Vera Janín-ek informazio-ekitaldi batean; harekin batera, Foru Erkidegoko transplanteetarako koordinatzaile Juan José Unzué Gaztelu medikua izan da.

Datu horiek giltzurruneko eta gibelesko transplanteek gora egin dutela adierazten dute, 2010ean egin zirenekin alderatuta; iaz, giltzurruneko 25 transplante eta gibelesko 17 egin ziren. Aldiz, bihotzeko transplanteen kopuruak behera egin du: 2011. urtean 5 izan dira, eta iaz, berriz, 10. Bestalde, 2 pertsona itxarote-zerrendan daude bihotz bat jasotzeko zain, 16 gibela transplantatzeko eta 77 giltzurruna transplantatzeko, eta kopuru horretatik 10ek aldi baterako mediku-kontraindikazioa dute (momentuz ezin dute transplantatuak izan).

Guztira, 2011n zehar, Nafarroako Ospitale Zentroetan 25 heriotza entzefaliko izan ziren guztira (horrek esan nahi du garun-jarduera erabat eten eta itzulezina dela, baina gorputzeko organoak eman daitezkeela); kopuru horretatik 21 benetako emaile bihurtu zen, hiru mediku-kontraindikazio eta familiarren bi ezezko jaso baitziren. Dohaintza horietatik, guztira 36 giltzurrun, 12 birika eta 8 bihotz lortu ziren.

Ehunei dagokienez, ustezko 126 emaile hauteman ziren, eta haietatik 30 bakarrik izan ziren benetakoak; horri esker, 60 kornea lortu ziren: 15 Nafarroako transplanteetarako, 33 Foru Erkidegotik beste erkidego batzuetara bidali ziren eta 12 ikerketa zientifikoetarako bideratu ziren. Gainera, 16 hezur atera (hezur anitzak) eta 12 ECIP izan ziren (gazteengan bizkarrezurrean, gerrialdean trafiko-istripuz sortutako traumatismoa). Halaber, haurren ustezko bi emaile multiorganiko hauteman ziren, baina azkenean ez ziren bideragarriak izan.

Bestalde, Nafarroako osasun sare publikoan 4.672 erditze izan ziren zilbor-hesteko 260 odol-emaileekin Nafarroako Ospitale Gunean; 440 erditze Lizarrako García Orcoyen Ospitalean zilbor-hesteko 60 odol-emaileekin.; eta 930 erditze Tuterako Reina Sofia Ospitalean zilborraren 103 emaileekin.

Hezur-muineko transplanteei dagokienez, aurten 43 egin dira era autologoan –pertsona bera da emailea eta hartzailea-, (iaz 44 izan ziren)

eta 25 era alogenikoan – transplantatutako ehuna, organoa etab. hartzailea ez den beste emaile batena da-, (iaz 24 izan ziren).

Ebakuntzak egiten diren ospitale-zentroi dagokienez, Foru Erkidegoan organoak Nafarroako Ospitale Guneko A zentroan (lehengo Nafarroako ospitalea) ateratzen dira, pertsonaren garun-heriotza egiaztatu ondoren, eta ehunena (korneak, hezurak eta bihotzeko balbulak, batez ere), berriz, NOGko B zentroan (lehengo Virgen del Camino Ospitalea). Transplanteak Nafarroako Ospitale Klinikoa egiten dira (gibela, bihotza, giltzurruna eta hezur-ehuna) eta ehunenak zentro guztietan.